

a.3 GELAKO OHITURAK: ASTEKO ARDURADUNA

> Eguraldia eta data



- Gelako kartela

Asteko arduradunaren bigarren eginbeharra eguneko data eta egiten duen eguraldia adieraztea izango da. Honela, umeei eguraldia, urtaroak, hilabeteak eta asteke egunak euskaraz izendatzen ikasiko dute. Bestalde, urtaroak, hilabeteak eta asteke egunak euskaraz izendatzen ikasteko zenbait ekintza daude eta ekintza bakoitzak bere azalpena dakar.

Helburuak

- Eguraldia adierazten ikastea.
- Urtaroak, hilabeteak eta asteke egunak egunero birpasatzea.
- Umeek zein eguraldi egiten duen eta zein egun den esatea.

Prozedura

- Lehenik eta behin, hezitzaileak "Gaurko eguraldia" fitxa aurkeztu eta horman itsatsi.
- Umeek irudian ikusten dutena deskribatu.
- Eguraldi-irudiak zein eguraldi egoerarekin lotzen duten galdetu.
- Hezitzaileak irudi bakoitza definitu eta zehaztu.
- Eguraldi-irudiak erakutsi. Irudia eta izena lotu.
- Umeei azaldu: egunero, gelako arduradunak denon aurrean, eskolara iristen denean, egiten duen eguraldiaren arabera eguraldi-irudia itsatsi beharko du horman (aurretik denon artean zehaztutako lekuan).
- Urtean zehar klase hasieran egingo den lantxo honetan, asteke arduradunak egunero idatzi beharko du: hilabetea, asteke eguna, hilabeteko eguna, eguraldia.

Oharra

- Belkroa erabil daiteke lan honetarako. Belkroa beti egongo da horman itsatsita. Asteke egunean, 1etik 31ra arteko zenbakiak eta eguraldi egoerei belkroa jar diezaikegu. Umeen lana aukeratzea eta itsatea izango da.

